



**OÑATIKO UDALA**  
**Kale garbiketako peoi eta peoi gidarien hautaketa-prozesua**  
**(2023AOPE0004 eta 2023AOPE0005)**  
**Oposizioaldiaren inguruko jakinarazpena**

Kale garbiketako peoi eta peoi gidarien deialdietan parte hartzeko eskaera egin dutenei jakinarazten zaie:

1.- Hautaketa prozesuan egingo den ariketa, LAUGARREN ariketa izango dela. Oinarriek honako hau diote:

**4. ariketa: Gaitasun- eta nortasun-probak.**

Bi atal izango ditu:

Lehenengo atala: Gaitasun probak. Gaitasun intelektualari buruzko testa egin beharko da, lanpostuaren zereginetara egokitzeko ahalmen potentzialak eta izangaiaren trebetasun tekniko-profesionalak ebaluatzeko. Gehienez ere **10 puntu** eskuratu ahal izango dira.

Bigarren atala: Nortasun proba. Nortasunari buruzko testa egin beharko da, izangaia eska tzen den profil profesionalari egokitzen zaion aztertzeko. Proba hau, epaimahaiak nahi izanez gero, elkarriketa pertsonalaren edota talde dinamikaren bidez osatu ahal izango da.

Gehienez ere, **10 puntu** eskuratu ahal izango dira.

Ariketa hau gainditzeko, **gutxienez 12,5 puntu** lortu beharko dira bi atalen baturan.

Bertan jasotakoari jarraituz, derrigorrez egin beharreko ariketak izango dira:

1.- Lehenengo test izaera izango duen ariketa izangai guztiek batera egingo dute: **2025eko MARTXOAREN 28an goizeko 09:00tan**. (ELTZIA, Larraña Auzoa 16).

- Musika Eltziako sarreran batuko dira hautagai guztiak, igogailua dagoen lekuan zehatzago izateko, Eltziako tabernako beste muturrean.
- Azterketa bigarren solairuan izango da.

Bertan aztertuko diren gaitasunak honako hauek dira:

Pertsona barruko arloa/Intrapersonal (2,5 Puntu)

Pertsonen arteko arloa/Interpersonal (2,5 puntu)

Zereginen garapen arloa/Desarrollo de tareas (2,5 puntu)

Ingurunearen arloa/Entorno (2,5 puntu)

Ariketa honek 10 puntuko balioa izango du.

2.- Elkarrizketa jarraian egingo da, banan-banan. Hurrenkera eta ordutegia jarraian azaltzen dugu:

<b>MARTXOAK 28</b> (ELTZIA, Larraña Auzoa 16).		
***2325*H	10:00	10:30
***5566**	10:30	11:00
***9980**	11:00	11:30
***7223**	11:30	12:00
***7342**	12:00	12:30
***2325*L	12:30	13:00

\*\*\* Izangai bakoitza, dagokion ordua baino 10 minutu lehenago bertaratuko da elkarrizketa tokira.

Bertan aztertuko diren gaitasunak honako hauek dira;

- 1) Erantzukizuna / Responsabilidad (1,428571 Puntu)
- 2) Baliabideen erabilera / Utilización de recursos (1,428571 Puntu)
- 3) Autonomia eta erabakiak hartzea / Autonomía y toma de decisiones (1,428571 Puntu)
- 4) Erakunde-ikuspegia / Perspectiva institucional (1,428571 Puntu)
- 5) Bikaintasuna lanean / konpromisoa lanaren kalitatearekin / Excelencia en el trabajo / compromiso con la calidad del trabajo (1,428571 Puntu)
- 6) Pertsonen arteko harremanak, komunikazio eraginkorra, enpatia eta asertibitatea / Relaciones interpersonales, comunicación eficaz, empatía y asertividad (1,428571 Puntu)
- 7) Lankidetzeta / Cooperación (1,428571 Puntu)

Ariketa honek 10 puntuko balioa izango du.

Oñatin, 2025eko martxoaren 12an  
Epaimahaiko idazkaria



OÑATIKO UDALA